



SEASKA

ESTITXU ROBLES

KOLEGIOA

IKASTETXE PROIEKTUAREN
AURKEZPENA



S E A S K A



ESTITXU ROBLES KOLEGIOA IKASTETXE PROIEKTUA

I. Ikastetxearen aurkezpena.

II. SEASKAREN proiektu pedagogikoa eta gauzatzea Estitxu Robles kolegioan.

III. Euskararen Xarta.

IV. Smartfoiari buruzko gurasoekilako engaiamenduaren ituna.

V. Informazio praktikoak : kontaktoak eta egunaren antolaketa.

Informazio gehigarriak eta frantsesezko itzulpena gure webgunean :

<https://baionakolegioa.eus>



I. Ikastetxearen aurkezpena.

- 2017ko sartzean SEASKAk ireki duen 4.kolegioa da Estitxu Robles Ikastetxea. Gaur, 2024ean, 39 ikastola badaude, 5 kolegio eta lizeoa, barne.
- Ipar Baionan dago, Jean Jacques Rousseau 6, etorbidean.

SORRERAREN TESTUINGURA :

- 2016-2017ko ikasturtean BAMeko, Uztaritze, Hazparneko eta Kanboko eskualdetako ikasleak biltzen zituen Xalbador kolegioak.
Nahiz eta 5 urte lehenago eraikina osoki berria eta handitua izan den zonaldeko ikasle guzien harrerarako sobera tipia bilakatua zen.
- Xalbadorreko kopuruak arintzeko asmoz BAMeko eta Aturri ibarreko ikasleak batuz, kolegio berria sortua izan da Baionan, hain zuzen Etxepare lizeoak utzitako eraikin zaharretan.
- Sorreran desafioari erantzuteko inplikazio kolektiboaren indarra azpimarratzekoa da :
 - Larunbat goizetan irakasle multxoak biltzen hasi zen ikastetxe berriaren egitasmo pedagogikoa diseinatzeko ;
 - Xalbador kolegioak diru emaitza eta SEASKAk laguntza administratiboa eskaini dute ;
 - Gurasoek esku hartze aktiboa erakutsi dute ere bai : elkarteak sortuz eta batzorde ezberdinak osatuz (Administrazio Kontseilua, Besta Taldea, Hezkuntz Batzordea...), materiala berreskuratuz, gelak berrituz, diru iturriak atzemaiteko ekimenak antolatuz;
- 2017ko sartzean 67 ikasleekin (6. eta 5.eko mailekin) eta 8 helduekin (6 irakasle eta 2 langileekin) kolegioa ireki zen eta ikasturte bukaeran, gogoeta partizipatibo baten ondotik (ikasgaien arteko proiektua eta gurasoen bozkak), Estitxu Robles izena aukeratu egin zen (Beskoitzeko kantari bat omentzeko asmoz).

Gaur egungo datuak :

▣ BAMEko eta Aturri ibarreko 6 ikastoletako haurrak biltzen ditu kolegioak :


- Angeluko Kimua ikastola ;
- Baionako Oihana eta Hiriondo ikastola
- Beskoitzeko ikastola ;
- Hiriburuko Ametza ikastola :
- Miarritzeko Itsas Argi ikastola
- ... eta laster Bokaleko ikastola.

▣ Ikuspundu sozio-linguistikoa :

- Miarritzeko Marion aintziratik Ipar Baionako Jouandain etorbidea arte eta Bokaletik Bardozeruntz zabaltzen da kolegioko zonaldea. Familien arteko aniztasun sozial eta kultural oso aberasgarria eragiten du horrek, mistotasun sozial handia bermatuz.

▣ Ingurumen erdalduna :

Estitxu Robles kolegioa ikastola da eta bere helburu nagusienetariko bat euskararen transmisioa da. Hala ere, SEASKAREN inkesten arabera, ikasleen artean 5etatik batek baizik ez du euskarazko hiztunik extean.



▣ Kolegiotik pasatu diren ikasleak eta aurreikusten direnak...

II. SEASKAREN hezkuntza proiektua.

▫ SEASKAREN Kontseilu Pedagogikoak bi urteko gogoeta lana eraman ondoren proiektu pedagogikoaren ardatzak eguneratuak izan dira :



EUSKALDUNA



ERALDATZAILEA



ONGI IZATEA



KOOPERATIBOA



AUTONOMIA



IZADIAN SUSTRAITUA

... eta Estitxu Robles kolegioan gauzatzeko manera :

Eskolako ikasgaia baino gehiago kolegioan :
harremantzeko, handitzen ikasteko,
sorkuntzan ibiltzeko... hizkuntza dugu euskara.

Murgilketa bermatzeko
ezinbestekoa delakoan gure
ikastolako ekipako kide guziak
euskaradunak dira.

Zazpi probintzietako harreman
sozial, kulturak eta profesionalak
parada ezin hobea : trukaketak,
partaidetzak, lanbidea...

Euskara : proiektu pedagogikoak
eta lehentasunak finkatzeko
irizpide nagusia.

Euskaradunak ez diren gurasoak akonpañatzeko
kolegioak daukan esperientzia handia.

Euskararen barneratzeko sistema
emankorrena da ikastola.

Kolegioaren bukaeran ikasle
elebidun osoak lortzeko
helburua :
- SEASKAk finkatutako egiazko
B2 mailako hizkuntza froga ;
- Brebetaren frantses azterketa.

Norberaren mestizo kulturala
galdezkatzeko tresna
gehigarria.

Eleaniztasunaren garapena
errazten duen sistema
eskolarra.

50 urtez euskal hiztunak
sortuz euskararen sendotzea
gizartean.



EUSKALDUNA

Euskaraz aritzeko motibazioa eta inbertsio emozionala
bultzatzeko animazioen egitarau aberatsa.

Kolegioan harremanak ez dira norberaren hierarkiako tokiari lotuak baina kide guzien artean izan behar den errespetuan oinarrituak.

Ikaslearen segipen hurbila, familiarekiko komunikazioaren jartotasuna.

Ikasleen eta helduen arteko errespetuzko hurbiltasuna.

Kolegioko kide guziek izenaz elgarri deitzen diote.

Lagunduz eta koadroatuz ikaslearen onerako aritzea.

Jazarpenaren mekanismoak aurreikusteko protokoloak.

Eskola Bizitzak antolatuako prebentzio saioak.

Tutoregotzaren sistema :

- Eskola Bizitzaren osagarritasunean ikaslearen harremanak eta garapen osoa akonpañatzen duena ;
- beste mailetakoko ikasleekilako nahasteka eta elkar harremantzeko erraztasuna.



ONGI IZATEA

Pedagogia abegikorra



AUTONOMIA

Ikasten ikastea

Metodologiaren saioak :

- « ikasten ikasteko » ;
- lan tresnak, konfidantza eta metakognizioa sendotzeko ;
- laguntza kontratuak.

Ateraldien antolaketa :
trukaketak, atzerriko hizkuntz bidaiak...

Egoera pedagogikoen eta antolatutako proiektuen eskaintza aberatsa.

Tutoregotzaren sistema :

- asteen bi aldiz etxeko lanak aurreratzeko saioak ;
- aholku metodologikoak eta beharrez kontratuen martxan jartzea ;
- lanean zein harremanetan jokamolde emankorrak identifikatzeko laguntza ;
- egoera problematikoak arraformulatzen laguntzea, ikasleak bere aterabideak gauzatu ditzan.



IALA (Ikasgaien Arteko Lan Astea) proiektuaren lanketaren garrantzia ikasleentzat, ikasturtean bi aldiz hobetzeko koadro eskaintzeko asmoz.

Norberaren iritzia, ardura, sorkuntza kolektiboen eta erabaki demokratikoetarat heltzeko gaitasunen lanketa.

Asteroko ekipa pedagogikoaren kontzertazio bilkurak.

Hezkuntza Batzordea : langileak eta gurasoak biltzen dituen gogoeta eta proposamen taldea ikastetxe ibilmoldea hobetzeko.

Ikasgaien arteko egitasmo bereziak : Klimari buruzkoa, eta abar.

Kolegioaren karbono eragina murrizteko griña : 2. eskuko altzari eta ekipamendu informatikoaren berreskuratzea, energiaren kontsumoaren eta garraiatzeko moldeen zainketa.

Gizarte eta inguramenari buruzko gaien jorratzea dispositibo pedagogiko ezberdinetan : kurtsoa, IALA...

Kolegioko komunitatearen inplikazioa eskatua garbiketa, diruztatzea eta bizia bermatzeko.

Ikasleen iritzia eta esku hartzea maiz bultzatuak kolegioan.

Aire hartzeetako antolaketarako asanbladak.

Sorkuntza kolektiboen garapena IALA asteetan.



KOOPERATIBOA



ERALDATZAILEA



IZADIAN SUSTRAITUA



III. Euskararen Xarta.

TESTUINGURUA

2015eko Ikastolen Kontseilutik gorpuztu zen Euskaraz Bizi izeneko hitzarmena lehen aldiz, zeinak ikastoletan Hizkuntza Proiektuak sortu edo eguneratzeko helburua baitzuen. Hizkuntza Proiektuak urtean behin auto-ebaluatzeko tresna ere plantan eman zen, ondotik: hizpro.eus.

2016ko Ikastolen Kontseilu Idekian, xarta zehatza sortzeko beharra agertu zen, non ikastolako bizitzan euskara bermatzea ahalbidetuko baitzuen. Era berean, etorkizunean pentsatu zen: gure haurrentzat euskaraz bizitzeko egitura inklusiboak.

2019ko Ikastolen Kontseiluan, oinarrizko 5 bizi-arau obratzeko xarta bozkatu zen, ikastoletako Euskaraz Bizi batzordeek eraman lan parte-hartzaileari babes kolektiboa ekarriz. Bost arau komunok, hiru ardatz nagusitan banatu ziren: Sentsibilizazioa, Hizkuntza Politika eta Sustapena.

Gaurko egunez, 2024ko Ikastolen Kontseiluan, Euskara Xarta eguneratua bozkatuko da, zeinetan ikastoletako Euskaraz Bizi batzordeek, Bulegoek zein Seaskako Hezkuntza Taldeak 14 bizi-arau landu baitituzte. Izan ere, egoera eta behar berrietara egokitu behar izan dugu xarta -emaitza soziolinguistiko larriak tarteko-, ahantzi gabe lehen xartaren helburuetarik bat, manera iraunkorrean garatzen joatea zela. Dena ezin baitu ikastolak bere gain hartu, kanpoko espazioari eta gurasoen esku hartzeari arreta berezia eskaini diegu.

Euskara Xarta eguneratu honek hiru helburu nagusi ditu:

- 1 - Gure hizkuntzak zapaldua izaten jarraitzen duela jabetzea, eta horrenbestez, euskara ikastolako mintzaira nagusia izateko neurriak bermatzea: bere ezagutza, presentzia eta erabilera segurtatuz.
- 2 - Helduen arteko inklusioa euskaratik lantzea, euskaldunen, euskara ikastunen eta erdaldunen tokia eta parte-hartzea bilatuz eta bermatuz.
- 3 - Buraso, irakasle eta hezitzaile gisa, gure hauren euskalduntzean eragile zuzenak izatea, ikastolaz kanpo - ahal den neurrian-, euskaraz biziz besteak beste



SENTSIBILIZAZIOA

1. Ate-idekitzeetan, sartze-bilkuretan, biltzar nagusietan eta momentu kolektibo nagusietan, gure kideak eta kide potentzialak Hizkuntza Proiektuaz informatzen ditugu.
2. Burasoen jarrera aktiboa bilatzen dugu, haurrak euskaraz loratzen lagundu ditzaten ikastolan, etxean eta jendarteetan.

KOMUNIKAZIOA

3. Ikastola eta familien arteko lotura erregularretan, euskarazko komunikazioa bermatzen dugu.
4. Sartze-bilkuretan eta Biltzar Nagusietan, euskaraz egitea bermatzen dugu, hastetik buru.
5. Burasoen lan-talde bilkura eta komunikazioa euskaraz izateko eginahalak egiten ditugu.
6. Barneko email formaletan (deialdiak, gomitak, bildumak...), euskara lehenesten dugu eta ikastolako hizkuntza nagusiari ikusgarritasuna ez kentzeko, itzulpenak aparteko loturan eransten ditugu.
7. Antolatu besta eta ekitaldien komunikazio euskarriak, ahalaz, osoki euskaraz hedatzen ditugu (aftixak, sare sozialak, emailak, etab).
8. Antolatu besta eta ekitaldietan, euskarazko harrera bermatzen dugu, eta lehen hitza euskaraz eskaintzen dugu.

SUSTAPENA

9. Ikastolako sartze-ateratzeetan, helduok egunero euskaraz elkar agurtzen dugu.
10. Gure haurrekin harremanetan diren langileak euskaraz ari dira.
11. Ikastolara ekarrarazten ditugun kanpoko eragile zein adituak euskaldunak dira.
12. Bigarren mailan, ikasleei euskarazko buru-laguna hornitzen diegu.

ANTOLAKETA

13. Euskararen erabilera neurketetan eta ahozko frogen emaitzetan oinarriturik, hizkuntza helburuak finkatzen ditugu, urtez urte.
14. Buraso elkarteak eta talde profesionalak eskuz esku zaintzen eta biziarazten dugu Hizkuntza Proiektua, ikastolak hautatu moldean.



IV. Smartfoiari buruzko engaiamendu ituna

Testuingurua :

Arlo zientifiko, medikal, psikiatriko eta eskolarretako adituek haur eta nerabeengan pantailen eta telefono mugikorraren erabilpenari lotutako arazo sanitario nagusia salatzen dute :

- memorioaren eta arretaren garapenaren oztopoak , ikasketen traba iraunkorrak ;
- loaren kantitatearen eta kalitatearen galtze handia eta bere ondorio kezagarriak handitze fisikoan, eguneroko informazioen barneratzean, ongi izate psikologikoan zein frustrazioen kudeaketan, baita ere etxeke giroan ;
- porrot eskolarra, sozializatzeko eta emozioen kontrolatzeko zailtasunekilako zerrikusi ukaezina.

Kolegioko Hezkuntz Batzordeak arazoaz jabeturik gogoeta eraman dugu eta kolektiboki jokatzeara proposatzen dizuegu. Ondorioz :

Estitxu Robles kolegioko Administrazio kontseiluaren onespenerekin ondoko engaimendua hartzea eskatzen dizu Hezkuntz Batzordeak :

- kolegioko 3. ikasturte bukaera arte haurrari smartfoirik ez ematea ;
- telefono bat izatea ezinbestekoa balitz (garraio eta kurtsoen ondoko ekimenen antolaketarako) smartfoirik ez ematea baina telefono tekladuna.

Oharrak :

- tresna bazter ezina da gaur egun. Hala ere, baliatzen ikasten da eta autonomian erabiltzeko heldutasun minimoa edukitzea ezinbestekoa da. Tarte edo epe hau baliatu beharko da, etxean zein ikastetxean, haurrari tresnaren baliatzen ikasteko, ez dadin arriskutsua bilakatu.
- norberaren errola eta desmartxa salbagarriaren gauzatzea sendotuko ditu engaiamendu kolektiboak.
- **Zuen konpromisoa baieztatzeko asmoz izen emate dozierrean doakion dokumentua izenpeturik kolegiara itzultzea eskatzen dizuegu.**



V. Informazio praktikoak : egunaren antolaketa eta kontaktoak.

6.eko ikaslearen egunaren antolaketa : adibidea.

ordutegia		A1	A2	A3	O1	O2
8:00-8:22	25'	Kolegioaren irekitzea				
8:25-10:00	1:30'	MAT	FRA	G. Hez.	EUS	L.B.Z.
10:00-10:17	20'	Aire hartzea	Aire hartzea	Aire hartzea* 10:25	Aire hartzea	Aire hartzea
10:20-11:50	1:30'	H. GEO	1. HIZK.	TEKNO *11:55	MAT	EUS
		FRA	EUS		1. HIZK	MAT
11:50-11:55	5'	Aire hartzea	Aire hartzea		Aire hartzea	Aire hartzea
11:55-12:40	45'	H. Mus	Jantegi aurreratua		Arte P.	Estudio
12:40-13:52	1:20	Jantegia, aire hartzea eta animazioak	Jantegia, aire hartzea eta animazioak		Jantegia, aire hartzea eta animazioak	Jantegia, aire hartzea eta animazioak
13:55-15:30	1:30'	1. HIZK.	G. HEZ.		FRA	H. GEO
15:30-15:40	10'	Aire hartzea	Aire hartzea		Aire hartzea	Aire hartzea
15:45-16:30	45'	Lan Pertsonalizatua	Kontzertazioa	Lan Pertsonalizatua	Indartze	
16:30-16:35		Garbiketa edota kutxak				
16:35		Kolegiotik ateratzea.				



Informazio praktikoak :

- kolegioaren helbidea : Jean Jacques Rousseau etorbidea 6, 64 100 Baiona ;
- ikasturtean 2 aldiz ordutegia aldatua da, IALA asteak (Ikasgaien Arteko Lan Asteak) gertatzen direlako ;
- ikasturtean 3 aldiz Pedagogia Egunak direlakoan haurrek etxean egon behar dute egun osoan ;
- berantak eta huts egiteak derrigorrez kolegioari seinalatu behar dizkiozue : 05 59 58 70 00 ;
- zuen eskaerak erantzuteko edota dudak argitzeko ondoko pertsonekin harremanetan sartzan ahal zirezte:

Hezkuntz Aholkulari Nagusia :

Idazkaria :

Diruzaina :

Zuzendaria :

han@baionakolegioa.eus

idazkaritza@baionakolegioa.eus

diruzaintza@baionakolegioa.eus

zuzendaritza@baionakolegioa.eus

- Goizetan 8:00 etatik goiti eta arratsaldetan 17:15ak arte ikasleen harrera eta zainketa segurtatua da. Ordutegi horiek errespetatzea eskertuko genizueke.
- Kolegiora heltzean telefono mugikor guziak pentsatutako kutxan utzi behar dute ikasleek eta 16:30etan berriz eskuratzen dute.
- Kolegioak ez ditu bere gain hartuko telefono mugikorren andeatzeak eta jantzien galtzeak, kasu horietan ikaslearen eta familiaren ardura osoki engaiatua da.
- Zure haurraren izen ematea bururatzeko, bete beharko duzuen txostena postaz ekainean errezibituko duzue.
- Garraio izen emateak familien gain daude (Euskal Hiri Elkargoarekin harremanetan sartuz).

Informazio gehigarriak eta frantsesezko itzulpena gure webgunean :

<https://baionakolegioa.eus>

Estitxu Robles kolegioko ekipa pedagogikoa.